



SAILKATUTAKO JARDUEREI DAGOKIEN JARDUERAREN LIZENTZIA ETA IREKITZE NAHIZ FUNTZIONAMENDU LIZENTZIA

Sailkatutako jardueratzat jotzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren II. Eranskinean zehaztutakoak.

- * Sailkatutako Jardueraren Proiektua, Teknikari eskudunak idatzitakoa (indarrean dagoen berariazko legeekin bat) eta dagokion Elkargo Profesionalak oniritzia emana. (3 ale).
 - * Jarduera ezarri ahal izateko Proiektu Teknikoa egin behar izan bada, obrak amaitzean Obra Bukaerako Ziurtagiria aurkeztu beharra dago, baita kasuan kasuko sektoreen ziurtagiri teknikoak ere. (Obren eta instalazioen Egiaztagiri Teknikoak)
 - * Jarduera ezartzeko obrarik edo Proiektu Teknikorik egin behar izan ez bada, obrak amaitzean suteen kontrako sistemen, aireztatze sistemen eta larrialdietarako argiteriaren gaineko argazki-erreportajea aurkeztu beharra dago.
- * Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko txostena edo aipatu txostena beharrezkoa ez dela agertzen duen ziurtagiria. Aipatu agiriak, otsailaren 27ko 3/98 Legearen II. Eranskineko b) eta c) ataletan zehaztutako jardueretarako aurkeztu behar dira.

IREKITZE ETA FUNTZIONAMENDUKO LIZENTZIA.- Obrak amaitu, Udaleko Zerbitzu Teknikoek eskatutako agiriak aurkeztu eta 15 egun natural igaro aurretik, ikuskatze-bisita egingo da zuzentze-neurriak bete direla egiaztatzeko.

Obrak gauzatzeko epea amaitu eta 15 egun natural igaro aurretik Udaleko Zerbitzu Teknikoak eskatutako agiriak aurkeztu ez badira, obrak ikuskatzera joango dira. Kasuan kasu, halaber, egoki deritzoten neurriak proposatuko dituzte.

Arestian aipatutakoa alde batera utzita, Erakunde Kalifikatzaileak jarduerari ezarritako neurri zuzentzaileen artean "Neurri zuzentzaileak ezartzearen ziurtagiri teknikoa" badago, agiri hori da obrak amaitzean aurkeztu behar dena.

JEZ-an alta emanda dauden ala ez egiaztatuko da (azken ordainagiria edo sarrera-zigilua duen Alta emateko eskabidearen kopia). Era berean, Estolderia eta zaborrak jasotzeagatiko Tasan alta emanda egotea egiaztatuko da.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: 6 HILABETE jarduerarentzako eta HILABETE 1 Irekitzerako (NNZZak ezartzearen ziurtagiri teknikoa aurkeztu den egunetik zenbatzen hasita).

AKATSAK ZUZENTZEKO GEHIENEZKO EPEA: 15 egun.

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxiba daiteke.